

Simone

Pixelez osatutako izarra

Beharrezkoa al da film batentzat aktore baten lana? Ezinbestekoa al du film garesti batek izar ezagun bat? Horiek eta beste galdera batzuk egin eta erantzuten saiatzen da *Simone*. Andrew Niccolek zuzendu du filma, eta hautsak harrotu ditu estreinatu baino lehen; aktore protagonista ordenagailuz sortutako pertsonaia dela esan baitute arduradunek etengabe. Azkenean, Simonek izen eta abizena ditu: Rachel Roberts deitzen da, eta modelo kanadarra da.

Ospeari eta horrek sortu duen kulturari buruzko parabola bitxi eta garrantza osatu du Andrew Niccolek *Simone* filmarekin. *Gattaca* bere aurreko filmean eta *The Truman Show*-n —Peter Weiren filmaren gidoia idatzi zuen— irekitako bidean sakondu du zuzendariak, eta egia- ren eta gezurraren artean dagoen distantzia txikiaren, eta komunikabideen manipulazio gaitasunaren gaineko gogoeta egin du.

Viktor Taranski (Al Pacino) garai txarra igarotzen ari den zinema zuzendaria da. Estudio handi bateko lehendakaria den bere emazte ohiak (Catherine Keener) film bat egiteko aukera emango dio, baina filma egiten hasi bezain pronto, aktore protagonista (Winona Ryder) filmaketa utzi, eta estudioko lehendakariak Taranski botako du. Bere unerik larrienean dagoenean, aingeru moduko bat azalduko zaio Taranskiri: Hank Aleno (Elias Koteas). Aleno informatikaria da, eta egiazkoa dirudien gizaki birtual bat sortu du. Hain zuzen ere, Simone deituriko aktore birtual horrek zuzendariak eskatzen dituen ezaugarri guztiak ditu: polita da, ez da zahartzen edo gizentzen, ez du managerrik, ez du eztabaidatzen, eta ez du inolako gutiziarik.

Simone protagonista duen filma egingo du Taranskik, eta arrakasta berehalakoa izango da. Hortik aurrera, ikusleek gurtu egingo dute izar berria, pixelez osatua dagoela jakin gabe. Gezur handi horrekin jarraitze- ko ahaleginak egingo ditu Taranskik, baina zaila izango zaio, jendeak izar berria ezagutu nahi duelako.

Hollywood izarrek sortzeko fabrika bat da, eta Niccolek hara zuzendu ditu bere geziak, egia- ren eta gezurraren arteko aldea oso txikia dela aldarrikatzeko: «Zer garrantzi du pertsona ospetsu bat egiazkoa ala gezurrez- koa izateak? Ospearen kultura ez da aldea igartzeko gai. Giza- kiok gaitasun handiagoa dugu gezur handiak sortzeko horiek antzemateko baino».

Gezur bat bestearen atzetik

Simone-k proposatzen duen istorio-jokoaren haritik, filma- ren arduradunek ere joko-txan- txa batekin aurkeztu nahi izan dute filma. *Simone* egiten hasi zirenetik, aktore protagonista ordenagailuz sortu zutela adie- razi zuten arduradunek, eta orain dela gutxira arte, hala saldu dute filma. *Simone*-ren prentsa dosierak berak esaten du Simone pertsonaia Fran- tzian sortu zutela.

Azkenean, baina, egia airera- tu dute AEBetako komunikabi- deek, eta Simonen atzean Ra- chel Roberts izeneko modelo kanadarra dagoela jakin dugu. Niccolek dioenez, txantxa bat besterik ez da izan — «filmaren tonuari jarraituz, sustapen kan- paina umorez hartu nahi izan dut», esan du—, baina kritika- riek eta zenbait komunikabidek ez diote *txantxa* barkatu, eta go- gor jo dute filmaren kontra.

Zuzendaria: Andrew Niccol. **Gidoia:** Andrew Niccol. **Aktoreak:** Al Pacino, Catherine Keener, Ra- chel Roberts, Pruitt Taylor Vin- ce, Jason Schwartzman, Jay Mohr. **Jatorria:** AEB, 2002. **Iraupena:** 117. **Webgunea:** www.simone.com



Gizaki birtuala eta errealitate aurrefabrikatuak ■ Iñaki Lazkano

Gattaca zientzia-fikziozko alegia ilunean etor- kizun hurbilean girotutako gizarte totalitario bat irudikatu zuen Zeelandako Andrew Niccol zinemagileak. Manipulazio genetikoaren bidez erdietsitako gizaki eder, argi eta osasun- tsuz osatutako gizarte *perfektu* bat, alegia. Sakonean, baina, ingeniari-za genetikoaren muga arriskutsuak ziren Niccolen kezka nagus- ia film hartan. Paradisu genetikoarengatik ordaindu beharreko prezioa. Gizatasunaren galera, funtsean.

Simone iradokitzailea, berriz, gizaki birtua- laz mintzo zaigu. Digitalki sortutako aktore batek hezur eta mamizko aktore bat orde- zka al dezake? *Final Fantasy* filmeko Aki Ross izar zibernetikoak duela ez asko proposatu zigun galdera berbera da, finean. Gizatasunaren galeraren auzia, berriz ere. Baina aipatutako gizatasunaren galeraz baino areago, manipu-

lazioaz ari zaigu Andrew Niccol *Simone* filme- an. Manipulazio genetiko-ko baina arriskutsua- goa den manipulazio mota bati buruz, zehatz- mehatz: manipulazio informatiboaz.

The Truman Show apartaren gidoian garatu zuen ideari berriz heldu, eta egun errealitatea manufakturatzea —albistegietan, batez ere— zein erraza den erakusten digu Niccol maltzu- rrak ilusio zinematografikoaren parabolaren bitartez. Manipulazio informatiboaren botere- aren arriskuaz ohartarazten gaituen satira dra- matikoa baita *Simone*. Izan ere, pixelak meta- tuz sentimenduak klonatzea ezinezkoa bada ere, errealitatea manipulat uz sentimenduak ez ezik, iritziak ere manipula baitaitezke. Joseph Goebbelsek ondo baino hobeto zekien hori: «Boterea lortu eta hari eusteko, armak erabiltzea baino eraginkorragoa da bihotzak bereganatzea».

